

BERTSOLARITZAREN HEDAKUNDEAZ. — Bertsolaritzaren aintzinaz eta hedakundeaz berri askorik ez dugu. Gaur gaurkoz nekez joan gindezke Iztuetak eman zizkigun albiste haie-tatik haruntza.

Gipuzkoa izan da bertsolaritzak indarrak gehien agertu duen eskualdea. Probintzia hontan erromantzezko kanta zahar-rak besteetan baino urriago izatea edo aurkitzea ere horren eragina edo horren ondorioa izan daitake. Badirudi bertsola-ritzak bertako kanta zaharrak aspaldi jan zituela.

Era berriko bertsolaritzak probitziatik kanpora ere eragi-na izan zuen. Gure egunok baino lehen zabaldua zen nonbait. Adibidez, «bertso berriak», R. M. Azkuek ez zituen hain gogoko, bere *Cancionero popular vasco* deritzan bilduman nabari de-nez. Tokirik ez bai zion eman. Hala ere, salbuespen bat edo beste bada. Horietako bat dugu Baztango Elizondon Paz Sala-bururen ahotik jaso zituen Xenpelarren bertso haiek:

*Komeni diran bertso berriak esplikatu al banitza,
aditutzea deseoa duen bati eman diot itza:
baileak eta soiñu ederrak engañaturik gabiltza,
animarentzat kaltean dator gure munduko bizitza.*

(Cancionero, II, 48).

Honek erakusten digu bertsolaritzaren eraginak zer nolako hedakunde-a izan zuen.

GURE «PENEN» ZABALKUNDEA. — Atzizkietako «penak» ugariak baino aisago neurritz kanporakoak izan dira azkenal-diko idazle gazteen artean. Ni ez naiz zenbait kaxkagorri erraz amor ematekoa, neu ere kaxkagorria naizenez; baina, *El Diario Vasco*-ko «Cartas de los lectores» delako lotsagabeen

sail hortan Urruxolak arrazoiz eta ongi salatu zuen «-pena» horren gehiegizko erabilerak ematen zion pena. Baina, kutsadura sakona izaki.

Geroztik, beste era bateko «penaz»-z eraman dut harridurarik aski. Larrienak erdizpurdizko idazleen artean somatu ditut. Baina ereinotzaren inguruan dabiltzan idazleengandik ez nuen holakorik espero. Zeren, Andu adiskidearen eleberri saritua irakurtzen, 57. orrialdean honako hau agertzen bait da: «... honetarako bakarrik ere bidaiak merezi zuela *pena* erabaki». Zer arraio esan nahi ote du? Bidaiako nekeen penak merezi dutela? Hala dirudi. Baina, hor, koma edo kaxotxa delakoren bat faltako da nonbait. Hala ere, esaldia «...zuela»-rekin bukatzea aski zuen.

Baina, zer harridura izan dudan umoredun antologia gisa Juan Martin Elexpuruk *Fernando plaentziarra* delakoaren hitzaurre bukaeran, bilduma justifikatu nahirik, honako hau dionean: «Pena merezi du benetan». Zer da hori? Lehenago ez, «leno», Santio erromes itxurako hark ere, bere ustezko herri hizkuntzan idatzi zuen: «pena merezi du». Gaztelera *merece la pena*-ren ordezkotzat nonbait. Hala dirudi.

Gizonok «pene» sobra ez badaukagu ere, nere ustez «pena» hori euskaldunontzat sobra dago.

GIPUTZA.—Jatorrizko adierazpenetik sortutako deiturak anitz badira, bereziki herbesteetan izengoiti erako erabileratik datozenak. Euskal Herriko lurraldeetarikorik anitz zabalduak dira, deituretan (eta, arren, irakurleak har dezala deitura apellidotzat, berriki asmatutako abizena baino jatorragoa denez); deitura zabalduok: Nabarro, Navarro, Alava, Bizkai eta Vizcaya, Zubero eta Sola (Sola, Zuberoa bait da erromantze zaharrean) maiz aurkitzen ditugu agiri zaharretatik gure egunkarte. Baina era hortan ez zaigu agertzen Gipuzkoarik eta inoiz pentsatu dugu gure probintzia honen izena oso berandukoa delako edo herbesteetan Vizcaino bezala hartu zutelako. Gaztelan hala zitekean, Sancho de Azpeitia el vizcaíno Cervantes-ek berak dakarrenez. Baina, aintzinakoa izatearen arrazoa ez da aski, zeren Lapurdikorik ez dugu aurkitzen eta Erromatarren